

BERBAIZU

10. urteurreneko ekitaldiak aurrera

Burutu da jada urteurrenaren harira antolatu den lehengo ekintza. Urtarrilaren 23an, Kar Kar taldeko gazteek talogintza tailerra Larrauriko baserri batean jaso zuten. Aintzinako moduan ikasi zuten taloa egiten, etxeo *amuma* irakasle zutela.

Hurrengo hitzordua urtarrilaren 29koa da. Berbalagun berezia izango da Berbaizuren lokalean. Mintza praktika saioaz gain, luntxa antolatu dute.

Otsailaren 4an Agate deunari kantatuko zaio Deustualdeko kaleetan. Okasiorako ahotsa prest edukiko dute kantugintza taldeko kideek.

Berbaizuko bazkideek otsailaren 27an ezagutuko dute urteurreneko berri. Zuzendaritzak Bidarte auzo etxean goiz partean biltzeko deia zabaldu die bazkideei. Bileran ostean, autobusa hartu eta Gipuzkoaldeko sagardotegi batean egingo da bazkari legea.



AUZOA

Reina de la Pazeko kalbarioa



2008ko abenduaren 21ean hustu zuen BBKk Reina de la Paz nagusientzako erresidentzia, erabiltzaile askoren borondatearen aurka. Jaurlaritzaren legedia betetzen ez zuela eta, eraitsi eta berria eraikitzeko konpromisoa hartu zuen orduan, baina gauzak asko okertu zaizkio aurrezki kutxari harrezkero. Urte betez gelditu egon da proiektua. Hainbat iturrik dioenez, Gizarte Ekintza saila bere osotasunean baldintzatu ez dezan finantziarioz bila ari da.

Egun proiektu berria erabat definitu gabe dago, nahiz alderdi askotatik eskatu zaion BBKri argitzeko. Ziurtzat jo daitekeena da gutxienez 325 ohe izango dituela etorkizunean -orain arteko kopurua- eta adinekoen gain, ezindu eta baliabide gutxiko gazteek ere izango dutela tokia.

Udalak 12 hileko epea eman dio BBKri eraispenerako. Urtarrilaren bukaeran has daitezke hondeamakinak lanean.

EUSKARA

Euskara atzeraka udalean

2010eko udal aurrekontuen arabera, Bilboko Udalak %14 murriztu du euskara bultzatzeko aurrekontua eta %19 euskara ikasteko diru-laguntzak (%25 azken bi urteotan). Datu hauek ikusita zalantza sortzen zaigu udalak euskararekiko duen konpromiso politikoari buruz.

Kontseiluak eskatu duenez, instituzioek aurrekontuaren %2 erabili behar-

ko lukete euskararen sustapenerako. Udal gobernuak %0,34 soilik bideratuko du horretarako, hau da, 1.689.673 euro (iaz 2.095.456 bideratu zuten).

Aurrekontu hauen harira, ezker abertzaleak zuzenketa aurkeztu zuen 15.005.250 euroko partida bat bideratzea eskatuz eta honekin batera Bilbo euskalduntzeko plan estrategikoa definitzea eta garatzea eskatuz.

